

Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklorako unitate didaktikoa

Hitz eginez ulertzen dugu elkar

Helburuak*

1. **Gatazkak ebazteari** ekitea, ikasleek bizi dituzten ohiko egoerak oinarri hartuta.
2. **Bata bestearen** lekuan jartzen ikastea, bai elkarriketa zein entzute aktiboa sustatuz.
3. **Indarkeriaren** eta gatazkaren arteko aldeaz jabetzea.

Jardueren eskema *

1. Karlosen kasua. Konponbideen bila.

Testigantza batean oinarritutako dilema morala.
Jarduera hau DBHko lehen ziklorako ere egokia da.

2. Zer berdintasun edo desberdintasun dago Karlosen kasuaren eta gure errealitatearen artean?

Taldeko eztabaida, kasutik ondorioztatutako hausnarketa eta iruzkinetan oinarrituta.

3. Ondorioak.

Ikasitakoa taldean azaltzea.

Jarduera eta hezkuntza-orientazioen garapena*

Irakasleak jardueraren aurkezpena egingo du, era honetara, esaterako: Indarkeria Ezaren eta Bakearen Eskola Egunean (DENIP), Bakeaz edota Gerraz hitz egiterakoan, planeta osoa hartzen dugu erreferentzia moduan, oro har (Munduko bakea edota herrialdeen arteko Gerrak, alegia); eta gugandik oso gertu ditugun gatazkak, berriz, “ahaztu” egiten ditugu.

1. Karlosen kasua (jarduera honek DBHko lehen ziklorako balio du)

Karlos, 5. mailan dagoen ikasle bat da, eta bere matematiketako koadernoan ikastetxeko komunetan aurkitu du, irainez, zirriborroz eta genitalen marrazkiz beteta. Marta, eskolako laguna du, eta isilpean gordetzeko baldintzapean esan dio, Juan ikusi zuela haren motxilatik koadernoan hartu eta han zerbait idazten. Beste ikaskide taldetxo batek ere ikusi zuen, baina ez zioten ezertxo ere esan.

Juan, Karlosen gela berean dagoen haurra da, eta sarri askotan egiten dio burla... Neska-mutiko askok “jolas” hori ondo ikusten dute, bai eta barre egin ere txantxa horien aurrean; bere lagunartean bazuade, salbu zaude.

Koadernoaren istorioa gertatu aurretik, Juanek Karlos aurrean hartzen zuen bakoitzean honek tutoreari jakinarazten zion (Juanek barkamena eskatu behar izan zion, tutoreak errieta egin ostean). Hala ere, Karlosek isilpean gorde ditu ordutik aurrerako eraso guztiak, eta ez die ezer esan, ez gurasoei, ez eta tutoreari ere; izan ere, zerbait esaten badu, zerbait txarragoa egingo diotela mehatxatu dute Juan eta bere lagunek.

Oraingoan ere, koadernoaren gorabeheraren ostean, Karlosek berdin egitea pentsatu du: ez tutoreari, ez gurasoei ezertxo ere ez esatea, alegia.

Konponbideen bila

Demagun Karlosi gertatu zaion horixe bera gertatzen dela gure gelan. Honako hiru irtenbide hauen artean, zein aukeratuko zenuke?

1. aukera:

Gelako gainerako neska-mutilek tutorearekin hitz egitea erabaki dute, Karlosen eta Juanen artean zer gertatzen den azaltzeko. Arazoa zein den esatea komeni dela uste dute; modu horretara, Juanek ez die ezer egingo. Taldean joatea bakarrik joatea baino errazagoa da.

2. aukera:

Gelako gainerako neska-mutilek eskarmentua ematen diete Juani eta bere lagunei.

Beraiei ere gauza bera egitea da onena. Tutoreak sarritan egin die errieta, baina horrek ez du ezertarako balio, gerora, hitz egin duenaren aurka mendekua hartzen baitute. Xabierri askaria kendu eta dirua lapurtu zioten, gozokitarako; Pepe komunean itxi zuten, eskolara berandu hel zedin; eta beste askori, irainak edota txistua jaurtitzen digute. Jipoi eder bat ematea da onena. Horrela ikasiko dute!! Juan eta lagunak aldean, gu askoz gehiago gara. Modu horretara, beldur izango digute eta bakean utziko gaituzte.

3. aukera:

Neska-mutiletako batek berak ere ez du gai horretaz txintik esan nahi, Karlosi gauzak erraztearren-edo.

Hobe da ezer ez esatea; horrela, ez dugu Juanekin liskarrik izango. Behin, Juan eskolatik aste beterako kanporatu zuten, jolastorduan neskato bat jotzeagatik; baina, berak eta bere lagunek neskari atzetik segitu eta harriak bota zizkieten. Guztiok gara auzo berekoak. Hobe da ezer ez esatea; bestela, ezin izango dugu parkean jolastu.

Gainontzeko ikaskideek zer egiten duten kontuan hartu gabe jokatu behar dutela adierazi behar zaie (agian, lehenengo bakoitzak bere koadernoan idaztea eta horren ondoren taldeak osatzea izango da modurik egokiena).

Pentsatu eta idatzi zurea bezalako erantzuna jarri duten lagunekin batera ea zergatik aukeratu duzuen konponbide hori. Gero, gainontzeko taldeen aurrean azaldu behar dituzue arrazoi horiek guztiak.

Irakasleak, hiru lan-taldeak prestatzeko ardura hartu behar du (aukera bakoitzeko, talde bana), ikasleen erabakiak kontuan hartuta, betiere. Aukeratariko bat oso ikasle gutxik hautatuz gero, talde horretara neska-mutil gehiago gehitzeko ahaleginak egin beharko dira. Beren erabakia defendatzeko argudioak pentsa ditzatela. Garrantzitsua da hori. Behin talde-lanerako denbora jakin bat igaro ostean, talde bakoitzak (ordezkari baten edo biren bidez), aukera horri dagozkion argudioak azaldu beharko ditu.

Ikasleari proposatzen zaizkion hiru jarrera horiek, gatazkak ebazteko esparruaren barne daude:

1. Elkarriketan oinarritutako konponbidea
2. Erantzuteko modu oldarkorrean oinarritutako konponbidea
3. Inhibizio ez-eraginkorrean oinarritutako konponbidea

Taldean azalpen ostean analizatu beharreko arazoak:

- 1.- Zuen ustez, zein da irtenbiderik onena? Zergatik?
- 2.- Modu horretara, konponduko al da Karlosen eta Juanen arteko arazoa?
- 3.- Zergatik tematu da Juan Karlosen aurka? Zure ustez, nola sentitzen da Karlos? Eta Juan?
- 4.- Juanen lagunak ere erasoan erantzule al dira? Zer dela eta egiten dute hark nahi duena?
- 5.- Zer nolako eraso mota jasan du Karlosek?

Gatazka jakin bat analizatzerakoan, bertan parte hartzen duten eragile guztiak hartu behar ditugu kontuan. Eztabaidak hauxe islatu beharko luke: guzti-guztiak direla egoera horren erantzule. Landu beharreko beste alde bat honakoa litzateke: ahozko indarkeria eta indarkeria fisikoa.

2. Zer berdintasun edo desberdintasun dago Karlosen kasuaren eta errealitatearen artean?

- Ikastetxean gatazka asko daudela uste duzu? Zergatik?
- Gatazka guztiak al dira ezkorrak?

Galdera horiei erantzun ostean, honakoa adierazteko unea da: gatazkak egunerokotasunean sartu behar direla, alegia eta, batzuetan, indarkeria sorrarazten dutela. Gatazka eta indarkeriaren arteko desberdintasunak finkatu beharko dira: gatazkak, ohikoak dira gizakien arteko harremanetan; indarkeria, berriz, jarduteko modua edota gatazka horiek “konpontzen” ahalegintzeko bide bat baino ez da. Horregatik, bizikidetzak hobetzeko eta indarkeria prebenitzeko, nahitaezkoa da gatazka horiek modu eraikitzailean ebazten ikastea (hausnartuz, hitz eginez, negoziatuz, etab.).

- Zer nolako jokabidea izaten duzu gatazken aurrean? Parte hartzen al duzu? Paso egiten duzu? Jartzen duzu zure aldetik arazoa konpontzeko? Zergatik?

Analisiak, bai gatazken bai horiek sorrarazten dituzten arrazoiaren alderik emozionalena lantzeko balio behar du; horretarako, honako laguntza eskaini ahalko da:

- Gatazka ebazteko modurik onena deduzitzea (bai erasoak jaso duenari dagokionez, bai erasotzaileari dagokionez); horretarako, elkarriketa sustatuko da, alde batetik eta entzute aktiboa, bestetik; baina, gatazka eta indarkeriaren arteko aldea ondo bereiztuaz, betiere.
- Erasoen aurrean alderdi bakoitzak hartzen duen jarreraren inguruan hausnartzea (Karlos-egaitasuna, lagunak- beldurra, Juan- arretoa deitzea, Juanen lagunak- burlak saihestea eta arretoa deitzea).
- Gatazkak bizitza pertsonalean eta sozialean bereiztekoak izanik, giro guztietan gertatzen direla jakitea: familian, eskolan, auzoan, etab. Gatazkek ez dute zertan ezkorrak izan behar; eragin handia dauka horiei aurre egiteko, bideratzeko edota konpontzeko moduak. Horregatik da garrantzitsua ezagutzea, eta ez urrundu edota baztertzea.
- Ez ahaztu inoiz bai erasoak jasan duena, bai erasotzailea pertsonak direla. Bestearen lekuan jarri beharra dago, arazoa ondo ulertzeko eta bakean bizi ahal izateko. Gogoratu “besteenganako errespetuan oinarritzen dira harreman pertsonal guztiak”.
- Ikasleei mezu hau helarazi behar zaie: gatazkak ebazteko prozesuan sufrimenduz betetako memento gogor asko egon arren, pertsona moduan hazi eta heltzeko aukera paregabea izan daitezke. Sarri askotan, desberdintasunek aberastu egiten gaituztela jakitea, eta horiek ez onartzea gainontzekoekiko tolerantzia eza erakusteko modua besterik ez dela ohartzea.
- Honakoa azpimarratzea: gure ikastetxean, gizartean bertan nahiz munduan garatzen den indarkeria, bata bestearengana zein norberak bere buruarengana dugun errespetua galtzen den uneetan bertan sortzen da, eta gabezia horrek bere horretan irauten du ikusi edota jasaten ditugun erasoak isilpean gordetzen ditugunean.
- Era berean, hau ere aztertu behar da: ea zergatik ez dakigun gatazkak elkarriketa bidez eta modu eraikitzailean ebazten, indarkeriara jo barik.

Ez dugu uste bullying hitza erabiltzea egokia denik, nahiz eta, seguru asko, eztabaidan zehar baino gehiagotan azalduko den. Horrela balitz, gatazkak ebazteko uneetan bide bakezaleak duen garrantzia azpimarratu behar da, muturreko egoeretara heldu barik. Hedabideek hain gogoko duten ikuspegi alarmista hori saihestu beharko litzateke; komentatu, hedabideetan asko hitz egiten dela gai horretaz, baina jadanik arazoa muturrera iritsi denean soilik. Lehenago esku hartzearen beharrezan planteatu, eta azpimarratu guztion erantzukizuna dela.

3. Ondorioak

Jarri muraletan edota enbalatzeko paperean idatzita jarduera guztiak burutu ostean ikasleek izandako ondorioak.

Jarduera amaitzeko, jasotako ondorio guztiak mural batean jartzeko eska dakieke neska-mutikoei. Mural hori gelan bertan edota zentroko beste edozein tokitan jar daiteke erakusgai; DENIPerako egingo den ekitaldi sinbolikoan ere erabil daiteke.

Karlosen kasua

Karlos, 5. mailan dagoen ikasle bat da, eta bere matematiketako koadernoak ikastetxeko komunitan aurkitu du, irainez, zirriborroz eta genitalen marrazkiz beteta. Marta, eskolako laguna du, eta isilpean gordetzeko baldintzapean esan dio, Juan ikusi zuela haren motxilatik koadernoak hartu eta han zerbait idazten. Beste ikaskide taldetxo batek ere ikusi zuen, baina ez zioten ezertxo ere esan.

Juan, Karlosen gela berean dagoen haurra da, eta sarri askotan egiten dio burla. Neska-mutiko askok “jolas” hori ondo ikusten dute, bai eta barre egin ere txantxa horien aurrean; bere lagunartean bazaude, salbu zaude.

Koadernoaren istorioa gertatu aurretik, Juanek Karlos aurrean hartzen zuen bakoitzean honek tutoreari jakinarazten zion (Juanek barkamena eskatu behar izan zion, tutoreak errieta egin ostean). Hala ere, Karlosek isilpean gorde ditu ordutik aurrerako eraso guztiak, eta ez die ezer esan, ez gurasoei, ez eta tutoreari ere; izan ere, zerbait esaten badu, zerbait txarragoa egingo diotela mehatxatu dute Juan eta bere lagunek.

Oraingoan ere, koadernoaren gorabeheraren ostean, Karlosek berdin egitea pentsatu du: ez tutoreari, ez gurasoei ezertxo ere ez esatea, alegia.

Demagun Karlosi gertatu zaion horixe bera gertatzen dela gure gelan. Honako hiru irtenbide hauen artean, zein aukeratuko zenuke?

1. aukera: Gelako gainerako neska-mutilek tutorearekin hitz egitea erabaki dute, Karlosen eta Juanen artean zer gertatzen den azaltzeko. Arazoa zein den esatea komeni dela uste dute; modu horretara, Juanek ez die ezer egingo. Taldean joatea bakarrik joatea baino errazagoa da.

2. aukera: Gelako gainerako neska-mutilek eskarmentua ematen diete Juani eta bere lagunei. Beraiei ere gauza bera egitea da onena. Tutoreak sarritan egin die errieta, baina horrek ez du ezertarako balio, gerora, hitz egin duenaren aurka mendekua hartzen baitute. Xabierri askaria kendu eta dirua lapurtu zioten, gozokitarako; Pepe komunean itxi zuten, eskolara berandu hel zedin; eta beste askori, irainak edota txistua jaurtitzen digute. Jipoi eder bat ematea da onena. Horrela ikasiko dute!! Juan eta lagunak aldean, gu askoz gehiago gara. Modu horretara, beldur izango digute eta bakean utziko gaituzte.

3. aukera: Neska-mutil guztiek gai horretaz hitz egitea saihesten dute, Karlosi gauzak erraztearren-edo. Hobe da ezer ez esatea; horrela, Juanekin liskarrak izatea saihestuko dugu. Behin, Juan eskolatik aste beterako kanporatu zuten, jolastorduan neskato bat jotzeagatik, eta bera eta bere lagunak neskari atzetik segitu eta harriak bota zizkieten. Guztiok gara auzo berekoak. Hobe da ezer ez esatea; hala eginez gero, ezin izango dugu parkean jolastu.

Nire taldean eztabaidatu ostean, aukerarik onena honakoa dela erabaki dugu:

Eta hauexek dira arrazoiak: